

Musika, antzerkia eta zinema ez komertziala dira kultur eskaintza nagusienak Euskal Herrian

(Donostia, 2008ko abenduaren 18an).- Musika, antzerkia eta zinema (ez komertziala) dira nagusiak euskal kultur eskaintzan; hau da, Euskal Autonomi Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian egiten diren kultur ekitaldien %80 kultur diziplina hauetan banatzen dira, eta musika da hain zuzen guztien gainetik agertzen dena, lurralde hauetan egiten diren kultur emanaldien %43rekin, alegia.

Bizkaiak hartzen du lehen posizioa kultur emanaldiei dagokienez, %37,7-rekin; Gipuzkoa bigarren lekuan dago (%30,58), ondoren Nafarroa (%21,98) eta Iparralde (9,73%) datozelarik.

Datu hauek Kulturaren Euskal Batzordeak, Kulturaren Euskal Planaren baitan, eginiko ikerketa batean jaso dira. **“Euskal Herriko Kultur Emanaldien Eskaintza, 2008ko urtarrila-ekaina”** txosten honek, aurtengo urtariletik ekaina bitartean Euskal Herriko hiru egitura administratiboetako egunkarien kultur agendatan oinarritu du bere lana. Guztira, 2008ko urtariletik ekaina bitartean 16.656 kultur ekitaldi aztertu dira.

Ikerketa-lan hau gaur aurkeztu da prentsaurrean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Bertan izan dira Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Kultura diputatuak.

Kultura Sailak orain aste gutxi aurkeztu zituen Euskal Herriko kultur ohituren eta praktiken inguruko datuak, non nabarmenki ikusten zen irakurketa eta musika zirela euskal herritarren kultur kontsumo edota praktika nagusienak. Gaur aurkeztu den txostenak, aitzitik, kontsumoa baino kultur eskaintza eta programazioaren inguruko xehetasunak plazaratzen ditu.

Aipatu txosten honek, Euskal Herrian gertatzen diren kultur emanaldien eskaintzaren argazki osatu bat lortu nahi du, haren berezitasunak gertutik ezagutzeko eta bere ondorengo bilakaera neurtzeko. Modu honetan, kultur emanaldien jarraipena egin ahal izateko tresna egoki bat izan nahi du, urtean zehar gertatzen den kultur programazioaren nondik norakoa zehazteko, eta kultur sektore desberdinetako eragileen planifikazioan lagungarri bilakatzeko asmoarekin.

Bestalde ere, Euskal Herrian antolatzen diren kultur emanaldien lurralde banaketa edota antolamendua ezagutu nahi da ikerketa honen bidez; hots, besteak beste kultur jardueren eragile nagusienak antzeman, kultur emanaldien eskaintzaren sektorekako antolamendua aztertu, euskararen presentzia neurtu eta sektore arteko azterketak (urteko txostena) prestatu.

Euskal Autonomi Erkidego, Nafarroa eta Iparraldeko egunkarietako kultur agendak hartu dira txosten honen iturri gisa; Euskal Autonomi Erkidegoan, Vocento Taldea (El Correo eta El Diario Vasco), Noticias Taldea (Noticias de Alava, Noticias de Guipúzcoa, Deia), Gara eta Berria; Nafarroan, Diario de Noticias de Navarra, Gara eta Berria; eta Iparralden, Euskal Kultur Erakundearen webgunea, Berria eta Gara.

➤ **“Euskal Herriko Kultur Emanaldien Eskaintza, 2008ko urtarrila-ekaina” txostenaren ondorio nagusienak EAE eta Nafarroan:**

- Musika emanaldiek, antzezlanek eta zinema ez komertzialak kultur programazioaren %80 osatzen dute.
- Musika emanaldiak kultur programazio osoaren %43ra iristen dira.
- Lurraldekako banaketa honakoa da: Bizkaia (%38), Gipuzkoa (%30), Nafarroa (%22) y Araba (%10). Alabaina, Gipuzkoak dauka 10.000 biztanle /hileko emanaldien ratio altuena (59), Nafarroa bigarrena delarik (48,7).
- Analsiak iraun duen denboran, lurraldeek eskainitako batezbestekoa 10.000 biztanle/hileko 8,14 kultur emanaldikoa da.
- Hiriburuek hartzen dituzte kultur emanaldien gehiengoa. Lurraldeekin alderatuta, hiriburuak duen kontzentrazio maila altua da Arabaren kasuan, kontzentrazio maila ertaina Bizkaian eta Nafarroan; eta Gipuzkoan kontzentrazio maila baxua ematen da bere hiriburuan.
- Hiriburuak alde batera utzirik, Gipuzkoako eskualdeetan biltzen dira emanaldi gehienak; EAEko emanaldi gehien biltzen dituzten eskualdeak Bizkaiko Uribe Kosta (650) eta Ezkerraldea (613) dira.
- Emanaldien hilabetekako banaketaren batez bestekoa 2.236ra iristen da (eguneko 73,7 emanaldi). Maiatzean antolatzen da ekitaldi gehien (2.833).
- Kultur ekitaldi gehienak asteburuetan antolatzen dira (ostirala, larunbata, igandea); ekitaldi guztien erdia baino gehiago, hain zuzen (7.825 emanaldi, %58,3).

- Kultur jardueraren erdia (%50,16) iluntze partean egiten da (20:00-23:00).
- Euskara kultur emanaldien laurdenaren inguruan erabiltzen da (%27).
- Kultura emanaldien %44,42 kultur etxeetan, tabernetan eta Antzokietan egiten da.

➤ **Kultura emanaldiak euskaraz**

- 2008ko lehen seihilekoan 3.000 kultur emanaldi egin ziren euskaraz; emanaldi guztien %29,5.
- Asteburuan antolatzen dira emanaldi gehien euskaraz, %33.
- Goizean antolatzen dira nagusiki euskarazko kultur emanaldiak (%53,2).
- Gipuzkoa da euskara gehien erabiltzen duena kultur emanaldietan (1.432 emanaldi -%46,22).
- Euskararen presentzia hiriburuetakoko kultur emanaldietan %19koa da, Euskal Herriko batz bestekoa baino baxuagoa (%29,5).
- Euskal Herrian 10.000 biztanleko/hilabetean egindako euskarazko emanaldiak 1,66 dira; hiriburuetan baxuagoa da (1,36). Beraz, hiriburuetatik kanpo euskarazko kultur emanaldi gehiago egiten da.
- Euskarazko emanaldi gehien dituzten udalerrietan, euskararen presentziaren portzentaia lurraldeetako eta hiriburuetakoko batezbestekoa baino altuagoa da.
- Kultur Etxeak dira euskarazko emanaldiak hartzen dituzten azpiegitura nagusiak (647).
- Kaleak, plazak (%61,4), eta gune masiboak (%68,7) dira euskarazko portzentualki pisu nabarmenatarikoa duten azpiegiturak.
- Bertsolaritza alde batera utziz, euskara gehien darabilten alorra antzerkia da, ikuskizunen herena (%33,9). Musika eta hitzaldien kasuan, laurdena da (%25-27).

➤ **Kultura emanaldiak sektoreka**

- *Ondoren azpimarratzen dira sektorekako kultur emanaldien lerro nagusienak:*
 - Musika alorrean, lehen seihilekoan emanaldiak egin dituzten 2.199 taldeetatik %43 Euskal Herrikoak ziren. Horietatik, %64k musika herrikoia alorrean dihardu.
 - Musika talde gehienak Pop-Rock-koral-orfeoi-eskolania eremukoak dira. Talde hauen jatorria Euskal Herrikoa da %60an. Hau da, oreka mantentzen da kanpotik datozen taldeekiko (%57) eta nolabaiteko espezializazioa dago bertako musika taldeekin, batez ere pop-rock eta koral alorrean.
 - Egiazki, musika emanaldien erdia hartzen dute antzezlanek, hain zuzen ere hori bera adierazten zuen orain aste gutxi aurkeztutako kultur ohitura eta praktiken inguruko ikerketak. Halaber, azpimarratzekoa da seihileko honetan 621 antzerki taldek egin dituztela emanaldiak, guztira 2.981 emanaldi; beraz, 4,8 emanaldi talde bakoitzeko.
 - Erakusketak Bizkaiko lurraldean kontzentratu dira nagusiki, %35,3 hain zuzen. Nafarroan %30koa izan da.
 - Dantza alorrean 380 emanaldi izan dira, beste emanaldietatik urrun.
 - Bertsolaritzan Gipuzkoa nabarmentzen da, emanaldien %60rekin.

➤ Kultur programazioa lurraldeka:

Jarraian, 2008ko urtarrila eta ekaina bitartean lurraldekako kultur programazioaren lerro nagusienak azaltzen dira:

❖ Araba:

- Musikak hartzen du kultur emanaldien erdia (%50).
- Kultur emanaldien %80 musika, antzerkia eta zinema (ez komertziala) alorrean kontzentratzen da.
- Gasteizek Arabako lurraldean egindako bost emanalditik lau hartzen ditu.
- Araban, urteko lehen seihilekoan egindako kultur emanaldien batez bestekoa 10.000 biztanleko/hilabetean 7,13 emanaldikoa da.
- Kultur Etxeek, tabernekin eta antzokiak kultur emanaldien erdia baino pixka bat gehiago hartzen dute (%51,63).
- Araban egindako kultur emanaldien erdia baino gehiago gaztelarazkoa izan da.
- Araban, 10.000 biztanleko/ hilabetean egiten diren euskarazko emanaldien batezbestekoa 1,02koa da.

❖ Bizkaia:

- Musikak, antzerkiak eta zinemak hartzen dute kultur emanaldien %83 inguru.
- Musikak kultur emanaldien erdia baino pixka bat gutxiago suposatzen du (%46,7).
- Bilbo eta bere inguruak Bizkaian egindako emanaldien %45 a hartzen du.
- Bizkaian, kultur emanaldien batez bestekoa 10.000 biztanleko/ hilabetean 7,3 emanaldikoa izan zen urteko lehen seihilekoan.
- Kultur etxeek, tabernekin eta antzokiak kultur emanaldien erdia baino pixka bat gutxiago (%45,4) hartzen dute.
- Bizkaiko kultur emanaldien erdia baino gehiagoan gaztelera erabili da.
- Bizkaian 10.000 biztanleko/hilabetean egindako euskarazko emanaldien ratioa 1,30ekoa da hilabetean.

❖ Gipuzkoa:

- Kultur emanaldien %80a musika, antzerkia eta zinemaren alorrekoak dira.
- Kultur emanaldien %42,2 a musika jardueri dagokie.
- Donostialdeak, alegia hiriburua eta inguruko herriek, lurralde guztiko emanaldien %50 inguru hartzen du.
- Urteko lehen seihilekoan, hilabetean 10.000 biztanleko 9,84 emanaldi egin ziren.
- Kultur etxeak dira Gipuzkoan kultur emanaldi gehien antolatzen dituzten azpiegiturak (%19,64a).
- Gipuzkoan, kultur emanaldien %46a euskaraz egin da.
- Gipuzkoan, euskarazko emanaldien ratioa 10.000 biztanleko/ hilean 3,32 emanaldikoa da.

Eranskina 1: Kultur sektorekako azterketa (EAE eta Nafarroa)

❖ Musika

- ✓ Hiriburuetakoko musika emanaldien ratioa 10.000 biztanle/hileko bost emanaldikoa da.
- ✓ Hiriburuak alde batera utzita, Barakaldo da musika emanaldi gehien eskaintzen dituen udalerria.
- ✓ Bergara, Burlata eta Tolosa dira hilabetean biztanleko musika emanaldi gehien eskaintzen dituzten herriak.
- ✓ Musika taularatzeko orduan taberna-diskotekak dira leku erabilienak (%26,82).
- ✓ Leku publikoetan (plaza, kale, festa-guneetan,...) 787 emanaldi egin dira aztertutako 6 hilabeteetan.
- ✓ 2008ko lehen seihilekoan jo duten 4.199 taldeetatik %43a Euskal Herrikoak ziren. Taldeen %64 herri-musika alorrean kokatzen dira.
- ✓ 2008ko lehen seihilekoan taularatu diren talde gehienak Pop-rock alorrekoak eta Koral-orfeoi-eskolaniak izan dira.
- ✓ Musika mota bietan, talde gehienak Euskal Herritik etorri dira, taldeen %60 baino pixka bat gutxiago direlarik.

❖ Antzerkia:

- ✓ Bizkaian eszenaratzen da antzerki emanaldien herena baino gehiago.
- ✓ Hiriburuetakoko antzerki emanaldien ratioa, batez besteko orokorra baino altuagoa da, 10.000 biztanle/hileko 1,8 emanaldi guztira.
- ✓ Hiriburuak kontuan hartu gabe, antzerki emanaldi gehien Getxon antolatu da 2008ko lehen seihilekoan.
- ✓ Arrigorriaga, Ermua eta Zornotza dira biztanleko hilabetean antzerki gehien eskaintzen duten udalerrak.
- ✓ Antzerki emanaldiak taularatzeko azpiegitura erabilienak kultur etxeak (%25,96) eta Antzokiak (%20,56) dira.
- ✓ Antzezlanak (antzerki obrak) dira antzerki emanaldien barruan pisu gehien dutenak (%48,4).

❖ Zinema (ez komertziala):

- ✓ Hiriburuetakoko biztanle/emanaldi ratioa (1,44) batez bestekoa baino zerbait altuagoa da, orokorra 10.000 biztanle/hileko 1,29 emanalditakoa da.
- ✓ Hiriburuak alde batera utzita Altsasuko (Nafarroa) datuak dira aipagarrienak, Altsasun 10.000 biztanle/hilean 21 zine emanaldi egin dira.
- ✓ Kultur etxeak dira zinema (ez-komertziala) gehien programatzen duten kultur azpiegiturak.
- ✓ Luzemetraiak dira zine emanaldien % 75,73.
- ✓ Zinema luzemetrai gehienek Europa eta AEBtan dute jatorria (%60).
- ✓

❖ Dantza:

- ✓ Bizkaian egiten dira Dantza emanaldi gehienak (%40,78a).
- ✓ EAE eta Nafarroako dantza emanaldien ratioa 10.000 biztanle/ hilabeteko 0,23 emanalditan dago, hiriburuetakoko ratioa pixka bat altuagoa (0,32) den bitartean.
- ✓ Hiriburuak ez baditugu kontuan hartzen, bakarrik 10 udalerrian programatu da 5 dantza emanaldi baino gehiago.
- ✓ Dantza gehien programatu duten 12 udalerrietan, hiriburuetan baino emanaldi gehiago egin dituzte 10.000 biztanleko hilabete bukaeran.
- ✓ Dantza eszenaratzeko azpiegitura erabilienak antzokiak dira (%32,36).

❖ Erakusketak:

- ✓ Bizkaian egiten dira erakusketa gehien (%35,35).
- ✓ Lurrealdeak orokorrean hartuz, 10.000 biztanleko hilabetean 0,49 erakusketa egiten dira.
- ✓ Hiriburuak kontuan hartu gabe, udalerritan batean ere ez da egin 20 erakusketa baino gehiago urtearen lehen seihilekoan.
- ✓ Erakusketa gehien dituzten 11 udalerrietan, hiriburuak baino ratio handiagoak dituzte biztanleko egindako erakusketetan.
- ✓ Kultur etxeak dira azpiegitura erabilienak erakusketak muntatzeko orduan (%30).
- ✓ Pintura eta argazkilaritza erakusketak dira nagusi, %76,41a hartuz bien artean.
- ✓ Hilero 10.000 biztanleko erakusketa gehien antolatzen dituzten udalerrien artean Huarte, Atarrabia eta Tolosa agertzen dira

❖ Bertsolaritza:

- ✓ EAE eta Nafarroako bertso-saioen %60a Gipuzkoan egiten da.
- ✓ 2008ko lehen seihilekoan, lurraldeetan hilero 10.000 biztanleko egindako emanaldien ratioa 1,85ean dago.
- ✓ Bertso saio gehienak leku publikoetan egiten dira (%26,12).
- ✓ Bertso saioak dira bertsolaritzarekin lotutako emanaldi ikusienak (%38,11).
- ✓ Hiriburuak kontuan hartu gabe, emanaldi gehien antolatzen dituzten 15 udalerrietan, hiriburuak baino biztanleko ratio altuagoak dituzte.
- ✓ Azpeitia, Andoain eta Oiartzunen antolatzen dira bertso saio gehien. Hiriburuetako ratioak baino altuagoak dauzkate.

❖ Hitzaldiak:

- ✓ Bizkaian egiten dira hitzaldi gehien (%38,16).
- ✓ Lurraldeetan hilabetean hamar mila biztanleko egindako hitzaldiak 0,88 dira.
- ✓ Hitzaldien ia herena Kultur etxeetan antolatzen da.
- ✓ Hitzaldi-eztabaidak dira hitzaldietan nagusi (%65) liburu-aurrezpenen (%35) aurretik.
- ✓ Hitzaldi gehienak Literatura/Liburua sektorearen barruan kokatzen dira(%70)

❖ Azokak:

- ✓ Urtarrila eta ekaina bitartean 25 azoka egin dira, %40 Gipuzkoan.
- ✓ Literatura eta Musika agertzen dira nabarmenki azoketan (%76).

Eranskina 2: Euskal kulturarekin lotutako kultur emanaldiak Ipar Euskal Herrian

- 2008ko lehen seihilekoan euskal kulturarekin lotutako 236 kultur emanaldi antolatu ziren Iparralden.
- Larunbata da kultur emanaldi gehien antolatzen diren eguna (%33). Halere antolatzen diren bost emanalditik lau aste bukaeran egiten dira (%79).
- Gaez (20:00 –23:00) egiten dira eguneko emanaldi gehienak (%60a).
- Iparraldean egiten diren lau kultur emanalditik hiru, Lapurdin antolatzen dira.
- Biztanleko hilabetean egindako emanaldien tasak baxuagoak dira biztanleria kopuru altuko udalerrietan.
- Iparraldeko kultur jardueren gehiengoa (%38,12) kultur etxe eta leku publikoetan antolatzen da,
- Jarduera nagusiak aztertzean musika eta antzerkia dira iparraldean nagusi (%70a).

✓